

BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3342

AGINDUA, 2026ko uztailaren 14koa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, animalien ongizatearen ziurtagiria lortzeko 2026. urterako laguntzen oinarri arau-tzaileak onartu eta deialdia egiten duena.

Abere-ustategietan dauden Animaliak Babesteko Europako Hitzarmenaren ondorioz (Estras-burgon sinatu zen, 1976ko martxoaren 10ean; Espainiak berretsi eta 1988ko azaroaren 6an jarri zen indarrean), Europako Erkidegoak animalien ongizatearen arloko hainbat xedapen eman ditu.

Ildo horretan, azpimarratzekoak dira abere-ustategietan dauden animaliak babesteko European egin diren zuzentarauak, bai eta haiek askotariko etxalde motetara zabaldu izana. Horien artean, Estatuko legedirako transposizio nabarmenena 2000ko martxoaren 10eko 348/2000 Errege Dekre-tukoa da –Kontseiluaren 2021eko apirilaren 21eko 441/2001 EDaren bidez aldatua–, zeinaren barruan sartzen baitira hainbat printzipio, adibidez estabulazioa, janaria, ura eta zaintza egokiak ematea, animalien behar fisiologiko eta etologikoen arabera eta bereganatutako esperientziari eta ezagutza zientifikoari jarraituz. Halaber, animalien zaintzaileek bete beharreko baldintzak jasotzen ditu.

Euskadin, bestalde, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko 2008ko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 35. artikuluan, zenbait xedapen arautzaile ezarri ziren bai abere-ustategien titu-larrentzat bai haien instalazioentzat, ustategi horietan dauden animalien ongizatea zaintze aldera.

Era berean, 2020ko maiatzaren 20an, Europako Batzordeak «Baserritik mahaira» estrate-gia aurkeztu zuen, Europako Itun Berdearen esparruko funtsezko ekimenetakotzat jotzen dena. Hemendik 2050era bitartean klima-neutraltasuna lortzen laguntzeko, Estrategiak EBko egungo elikadura-sistema eredu jasangarriago batera hurbildu nahi du, eta estrategia horren helburu estrategikoetako bat animalien ongizatea hobetzea da.

Estrategia horren isla da, gainera, kontsumitzailea gero eta sentsibilizatuago dagoela etiketan animalien ongizatearen ziurtagiria duten produktuak eskatzeari dagokionez.

Europako Batzordeak ziurtagiri horiei buruz araudi espezifikorik ez duenez, ziurtatzeko hainbat eredu eta eskema sortu dira. Estatuan, Welfair ziurtagiria nabarmentzen da, IRTAk eta NEIKERek egindako ikerketa-jardueraren ondorioz sortutako zigilua. Ziurtagiri hori Europako erreferentziazko Welfare Quality eta AWIN ziurtagirietan oinarritzen da eta etxaldeetan, haztegietan eta hiltegietan dauden animalien ongizatearen kalitatea sakon ebaluatzen eta kontrolatzen du, honako espezie hauei dagokienez: behiak, txerriak, ardiak, ahuntzak eta oiloak, oilaskoak, untxiak eta indioilarrak. Gainera, lanbidearteko antolakunde batzuek (INTERPORC edo AVIANZA, besteak beste) edo GKEek (ANDA, adibidez) sustatutako ziurtagiriak daude. Nazioartean are handiagoa da ziurta-girien kopurua, gehienak GKEek sustatuak (RSPCA eta AHA, beste askoren artean). Ziurtagiri bakoitzak bere eskakizun espezifikoak ditu, batzuk ebaluatzeko errazagoak dira eta beste batzuk konplexuagoak. Hala ere, ezagutza zientifikorik berrienari jarraikiz, ziurtagiriek batez ere animalien egoeran oinarritutako adierazleak erabili behar dituzte, horretarako animalien ongizatea ziurta-tzeko baliozkotuta dauden irizpideak erabiliz.

Agindu honek abeltzaintza-arloko elkarte edo ustategi talde zehatzei laguntzea du helburu, hain zuzen ere ustategietan animalien ongizatea bermatzen duen ziurtagiria lortzeko kostuak

ordaintzeko, ziurtagiria lortzen laguntzen duten ekintzen bidez; izan ere, ziurtagiri horrek animalien ongizatea babesten laguntzen du, baita elikagai-sistemak eredu jasangarriagoetara bideratzen ere. Ildo horretan, agindu honek minimis erregimeneko laguntza batzuk planteatzen ditu ustiatzeko animalien ongizatearen ziurtagiri bat lor dezaten laguntzeko, eta laguntzek aurrerantzean jarraipena izatea aurreikusten du.

Laguntza-deialdi honek aurrekontu-estaldura nahikoa du, Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 7/2025 Legeak baimendutako kredituen arabera, nahikoa aurrekontu-zuzkidura baitago.

Dirulaguntzen deialdi hau, halaber, jasota dago Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2026ko martxoaren 4ko Aginduan, zeinaren bidez onartzen baita Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren 2026-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan argitaratua. Bertan, laguntzak «Hazkunde eta ongizate eredu» ardatz estrategikoaren eta «Lehen sektorea eta arrantza» helburu estrategikoaren barruan sartzen dira. Laguntza hauen bitartez, elikadura ekologikoa, tokikoa, jasangarria eta osasuntsuagoa izatea sustatu nahi da, eta, horretarako, ingurumena eta animalien ongizatea errespetatuko dituzten ekoizpen-sistemak bultzatuko dira.

Laguntza hauek 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Batzordearen Erregelamenduari atxikitzen zaizkio –Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzetan aplikatzeari buruzkoa–. Horrez gain, honako arau hauek aplikatuko zaizkie: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa, eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta azken horren Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuan jasotako oinarritzko araudia.

Jaurlaritzari buruzko 1981eko ekainaren 30eko 7/1981 Legearekin bat etorritik, zeinaren 26.4 artikuluan arabera, sailburuek, Jaurlaritzako kide gisa dagozkien eskumenei kalterik egin gabe, beren sailari dagozkion gaietan administrazio-xedapen orokorrak eta ebazpenak emateko eskudantzia baitute, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Animalien ongizatearen ziurtagiria lortzeko laguntzen deialdia.

1.– Animalien ongizatearen ziurtagiria lortzeko dirulaguntzen oinarriak onartzea. Oinarriak agindu honen eranskinean jasota daude.

2.– Animalien ongizatearen ziurtagiria lortzeko laguntzen 2026ko ekitaldirako deialdia egitea.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, interesdunek berraztertzeko errekurtsua aurkez diezaioke Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.— Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 14a.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
AMAYA BARREDO MARTÍN.

ERANSKINA

OINARRI ARAUTZAILEAK

1. oinarria.– Laguntzaren xedea eta helburua.

Oinarri hauen xedea animalien ongizatearen ziurtagiria lortzeko laguntzen deialdia arautzea da 2026ko ekitaldirako.

Laguntza hauen helburua honako hau da: behar diren gastuak finantzatzea animalien ongizatea kontrolatzeko barne-prozedura egin eta ezartzeko, arduradunei prestakuntza emateko eta animalien ongizatearen ziurtagiria eskuratzeko.

2. oinarria.– Dirulaguntzen izaera.

1.– Dirulaguntzen programa honek printzipio hauek bete behar ditu: publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, dirulaguntza eman duen administrazioak ezarritako helburuak betetzeko efikazia, baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia, eta dirulaguntzen arloan indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen gainerako guztiak.

2.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak lehiaketa bidezko norgehiagokaren bidez esleituko dira, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.– Programa honen bidez ematen diren laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira.

4.– Programa honi jarraituz emango diren laguntzak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuen 107. eta 108. artikuluko minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2023ko abenduaren 13ko Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamenduan ezarritako minimis erregimenari atxikita daude.

Estatu kide bakoitzak enpresa bakar bati emandako minimis laguntzen diru-zenbateko osoa ez da 300.000 eurotik gorakoa izango laguntza eman aurreko hiru ekitaldietan.

Muga hori gaindituz gero, emandako laguntzaren diru-zenbatekoa gutxitu egingo da, soberako kopurua kenduta.

Minimis laguntzak onuradunari laguntza eman zaiola jakinarazten zaion unean eman direla joko da.

3. oinarria.– Finantzaketa.

Ekitaldi honetarako, 100.000 euro erabiliko dira agindu honetan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura finantzatuko dira.

4. oinarria.– Onuradunak.

Banakako ustiatzearen pertsona fisiko titularrak izan daitezke agindu honetan araututako laguntzen onuradun, bai eta egoitza EAEn duten entitate pribatuak ere, tartean, kooperatibak, enpresak, elkarteak edo nekazaritzako ustiatzeak biltzen dituzten nekazaritzako beste elkarte batzuk. Nolanahi ere, ustiatze guzti-guztien barne-auditoretzako kontrol-prozeduraren ezarpenean operadore-lanak egin beharko dituzte, ustiatzeak helburu hauek badituzte: animalia-jatorriko elikagaien ekoizpena edo merkaturatzea, azpisektore hauetan: txerriak, erruteko hegazti-hazkuntza, landako oilaskoa, ardi-esnea, ahuntz-esnea, behi-esnea, behi-okela eta untxia.

Pertsona fisiko edo juridiko pribatuen taldeen kasuan, pertsonalitate juridikorik ez badute, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legeko 11.4 artikuluan finkatutakoa bete beharko dute.

5. oinarria.– Onuradun izateko debekuak eta baldintza orokorrak.

1.– Agindu honetan iragarritako laguntzen onuradun izateko, oinarri honetan ezarritako eskakizunak bete behar dira, honako bi lege-arau hauen arabera: Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2003ko abenduaren 21eko 20/2003 Legearen 13. artikulua, eta Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko 2015eko urriaren 15eko 8/2015 Legea. Hauek dira betekizunak:

a) Laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo batez kondenatuak ez izatea, delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

b) Borondatezko konkurtsoa deklaratzeko ez eskatu izana, prozeduraren batean kaudimengabe deklarata ez egotea, konkurtsoan deklarata ez egotea (konkurtso horretan hitzarmen batek eraginkortasuna hartzen duen kasuan izan ezik), esku-hartze judizialaren mende ez egotea edo Konkurtsoari buruzko 2003ko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta ez egotea, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaitze-aldia bukatu gabe dagoela.

c) Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazte irmoa eragin ez izana, suntsiarazte-arrazoi horren errudun jo dituztelarik.

d) Pertsona fisikoak, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen ordezkari direnak ez egotea egoera hauetakoren batean: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bataerazintasunei buruzko 1984ko abenduaren 26ko 53/1984 Legean xedatutako bataerazintasunen araubideko egoeraren batean edo Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen 2014ko ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako egoeraren batean; edo Hauteskunde Araubide Orokorraren 1985eko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargu bat ez izatea, arau horretan edo gai hauek arautzen dituen arau autonomikoan ezarritakoaren arabera.

e) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izateari buruzko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan zehazten den moduan.

f) Egoitza fiskala ez izatea paradisu fiskaltzat hartutako lurralde edo herrialde batean.

g) Egunean izatea dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan ezarritako baldintzetan (Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).

h) Ebazpen irmo bidez dirulaguntzak eskuratzeko aukera galtzeko zehapena jaso ez izana, lege honen edo hala ezartzen duten beste lege batzuen arabera. Zehazki, ezingo dira dirulaguntzen onuradun edo entitate laguntzaile izan sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoak eta juridikoak, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan. Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak eta, Estatuko

legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak.

i) Pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuak, ez izatea zehapenik Hondakinak eta Lur-zoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko 2022ko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 2021eko abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritako arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena ordaindu arte.

j) Desgaitasuna duten pertsonentzat lege ezarritako erreserba-kuota beteta izatea, hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla egiaztatu gabe.

k) Elkarteen kasuan, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoko 4. artikuluko 5. eta 6. apartatueta ezarritako debekuen kausetan nahasita ez egotea. Eta etenda ez egotea inskribatzeko administrazio-prozedura, ez-zilegitasun penalaren arrazoizko zantzuak aurkitzeagatik, 1/2002 Lege Organikoko 30.4 artikuluan ezarritakoa aplikatzeko, harik eta ebazpen judizial irmoa egon arte; kasu horretan, dagokion inskripzioa egin ahal izango da, dagokion erregistroan.

l) Onuradunak enpresaren deslokalizazioan ez erortzeko eginbeharra bete beharko du, aplikatzekoa denean, Euskal Autonomia Erkidegoko Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, bai eta gainfinantzaketaren edozein kasu saihestekoa ere, lege horren 9.4.h) artikuluan xedatutakoaren arabera.

m) Eskatzaileak jakinarazi behar du ea diruz laguntzen den gastu bera ordaintzeko beste laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikorik eskatu dion administrazio publiko edo ente publiko zein pribaturen bati, bai eta eskuratu duen ala ez. Halaber, 2024., 2025. eta 2026. urteetan minimis erregimenari atxikita eskatu eta/edo lortu dituen laguntzei buruzko berariazko adierazpena aurkeztu behar du.

n) Pertsona juridikoen kasuan, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko 2015eko urriaren 15eko 8/2015 Legean ezarritakoa betetzea. Alegia:

– Eskatzaileak zigor- eta administrazio-zehapenik ez izatea sexuan oinarritutako diskriminazioagatik, eta dirulaguntzak edo bestelako laguntza publikoak jasotzeko aukera galarazita ez izatea 1/2023 Legegintzako Errege Dekretuari jarraikiz (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena).

– Elkarre edo antolakunde profesionalak, enpresenak edo bestelakoak izanik, zuzendaritza-organoetako emakumeen eta gizonen kopuruan, gutxienez, oreka egotea, 2015eko urriaren 15eko 8/2015 Legearen 7.5 artikuluan ezarritako definizioaren arabera.

o) Ez zaie laguntzarik emango, ez zuzenean ez zeharka, LGTBIfobia gauzatzen, eragiten edo sustatzen duten pertsona fisiko edo juridikoei, publikoei, pribatuei edo finantzaketa mistokoei, konbertsio-terapiak barne, 4/2023 Legearen 82. artikuluari jarraikiz (4/2023 Legea, otsailaren 28koa, Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko dena).

p) Europako Batzordeak emandako berreskuratze-agindu baten mende ez egotea, baldin eta agindu horrek lege kanpokotzat eta barne-merkatuarekin bateraezintzat jo badu jasotako laguntza.

2.– Onuradun izan daitezkeen nortasun juridikorik gabeko pertsona fisikoen zein juridikoen taldeetako kide guztiek bete beharko dituzte aurreko 1. atalean jasotako eskakizunak.

Halaber, 1. ataleko betekizunen eraginpean egongo dira lehenagoko enpresa batzuen jarraipena izan daitezkeela pentsatzeko bidea ematen duten enpresak (enpresako buruak direla-eta edo beste inguruabar batzuk direla-eta, eraldatze, bat-egite edo ondorengotza bidez).

3.– 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetarako, Merkataritzako eragiketetan berandutzaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen 2004ko abenduaren 29ko 3/2004 Legea aplikatzen zaien pertsona fisikoek eta juridikoek (zuzenbide publikoko entitate ez beste guztiek), irabazteko asmoa duten heinean, egiaztatu beharko dute lege horretan onuraduna edo entitate laguntzailea izateko ezarritako ordainketa-epealdiak betetzen dituztela atal honetan xedatzen den bezala. Atal hau betetzeko, enpresa hornitzaileari aurretiaz kobratzeko modua ematen dioten finantzaketa guztiak baliozkotzat joko dira, baldin eta kostua bezeroaren kontura bada eta ordaindu ezean hornitzailearen aurka jotzerik ez badago.

Oinarri arautzaileetan beste epealdirik edo unerik ezarri ezean, egiaztapena egiteko 10 egun balioduneko epealdia egongo da dirulaguntza emateko proposatutako interesdunei behin-behineko ebazpena jakinarazten zaienetik.

Entzunaldiaren izapidea egiten ez bada –prozeduran ez dagoelako eta interesdunak azaldutako egitate, alegazio eta frogak baino ez direlako hartzen kontuan–, egiaztapena egiteko 10 eguneko epealdia egongo da organo instrukzio-egileak behin betiko ebazpenaren proposamenaren aurretik berariaz egindako errekerimenduaren jakinarazpenetik.

Hala ere, baldin eta auditorearen ziurtapena edo adostutako prozedurei buruzko txostena ezin bada lortu hura aurkezteko ezarritako epealdiaren barruan, egiaztagiri hori eskatu delako frogagiria aurkeztu beharko da eta, hura lortu eta gero, berehala aurkeztu beharko da, betiere dirulaguntza emateko ebazpena eman baino lehen.

4.– Era berean, dirulaguntzaren xede diren proiektuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Diruz laguntzekoak diren jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan egitea.
- b) Ziurtagiriak, edozein dela ere, animalien ongizatea ebalua dezala, batez ere animalien egoerari oinarritutako adierazleen bidez.
- c) Diruz laguntzekoak diren gastuak 2026. urtean eginak izatea eta ziurtagiria lortzeko egin beharreko edo egindako ekintzen plan xehatu baten barruan kokatzea.

6. oinarria.– Epea eta eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabidearekin batera, oinarri honen 8. paragrafoan eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira.

2.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14. artikuluan ezarritakoa betez:

- a) Pertsona fisikoek modu presentzialean zein elektronikok aurkez ditzakete eskaerak.

– Aurrez aurre: eskabideak Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren bulegoetan aurkeztuko dira (Donostia-San Sebastian kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen

16.4 artikulua xedatzen dituen tokietako edozeinetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuaren arabera. Eskatzaileak posta-bulego batean aurkezten badu eskabidea, gutun-azal irekian aurkeztu beharko du, postako langileek zigila dezaten eta data ezar diezaioten. Eskabidea Zuzenean zerbitzuan aurkezteko, ezinbestekoa izango da aurretik hitzordua eskatzea:

<https://www.euskadi.eus/hitzordua-zuzenean>

Alabaina, ahal den neurrian behintzat, eskabideak aurkezteko eta espedientea izapidetzeko bide telematikoa erabiltzea gomendatzen da.

– Bide elektronikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoren bidez aurkeztuko dira eskabideak:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1206906>

Eskabidea eta agiriak aurrez aurre edo elektronikoki aurkezteak ez dakar bide bera erabili beharra prozeduraren hurrengo izapideetan; aitzitik, noiznahi aldatu ahal izango da modua.

b) Pertsona juridikoek eta 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluko a), b), c) eta d) letretan adierazitako gainerako subjektuek bitarteko elektronikoak erabilia aurkeztuko dute eskabidea.

3.– Eskabideak bide elektronikoz nahiz aurrez aurre aurkezteko, eskaeretakako inprimaki-eredu normalizatua erabiliko da. Eredu hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa dago eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1206906>

4.– Eskabidearen ondorengo izapideak elektronikoki egiteko (baita gastua justifikatzeko izapidea ere), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikora sartu beharko da, «Nire karpeta» atalera:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainerako ereduak izapidetzeko moduari buruzko zehaztasunak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa daude eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1206906>

6.– Eskaera ordezkari baten bitartez egiten bada, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da ordezkaritza, ahalordeen erregistro elektronikoren bitartez:

<https://www.euskadi.eus/ordezkarik>

7.– Laguntza-eskabidearen ereduaren oinarrizko edukia oinarri hauen eranskin gisa argitaratu da.

8.– Laguntzen eskatzaile bakoitzak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Pertsona juridikoek, eratzeko eskrituraren eta estatutuen kopia bana, edo pertsona juridikoa legez eta modu baliozkoan eratuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioarena (besteak beste, dagokion erregistroan izena emanda egotearen ziurtagiria).

b) Erantzukizunpeko adierazpena, oinarriotan eskatutako baldintzak betetzen dituela eta aurkeztutako agiri guztietan egia dioela adierazteko.

Geroago, 20/2023 Legearen 9.5 artikuluekin bat etorriz, erantzukizunpeko aitorpenean biltzen diren puntuen egiazkotasuna berresteko, dokumentazio ordezkaturik aurkeztu beharko da, eta hori dirulaguntza emateko prozeduraren ebazpena eman baino lehenago egin beharko dute onuradun gisa aurkezten direnek.

c) Eskabideak ziurtagiria lortzeko egin beharreko edo egindako ekintzen plan xehatua izan beharko du, eta ziurtatu beharreko ustategiak identifikatu beharko ditu (NUE – Nekazaritzako Ustategien Erregistroak identifikatuta).

Planak gastu hauen zenbatekoak zehaztu beharko ditu: autokontrol-sistema ezartzea, sistema-ren arduradunari prestakuntza ematea, autokontrol-prozedura idaztea eta barne-auditoriak egitea.

d) Eta eskatzaileak laguntza kuantifikatzeko aurkeztu nahi duen beste edozein dokumentu osagarri.

e) Izaera juridikorik gabeko pertsona fisikoen edo juridikoen taldeek eskabidean berariaz adierazi beharko dituzte kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren diru-zenbatekoa. Era berean, taldearen ordezkari edo ahaladun bakar bat izendatu beharko dute, taldeari onuradun izateagatik dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak dituenak.

f) Lanbide-, enpresa- edo bestelako elkarte edo antolakunde kasuan, zuzendaritza-organotan gutxienez emakumeen presentzia orekatua dutela egiaztatzen duten agiriak, Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legearen 7.5 artikuluan ezarritako definizioaren arabera.

g) Hala badagokio, Kalitatea erregimenekoa dela egiaztatzen duen dokumentazioa.

h) Hala badagokio, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legearen 15. artikuluan aurreikusitako inguruabarrak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa, oinarri arautzaile hauetan aurreikusitako ekintza positiboko neurriak aplikatzeko.

9.– Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak automatikoki egiaztatuko ditu haren IFK, zerga-betebeharren ordainketak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak, eskatzaileek edo onuradunek horretarako berariazko baimena eman beharrik izan gabe, haiek berariaz aurka egiten diotenean salbu, eta, kasu horretan, dagokion ziurtagiria edo dokumentua aurkeztu beharko dute. Hori guztia Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Agindua aplikatuz, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-ren 39/2015 Legearen 28.2 artikuluari dagokionez.

10.– 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluan ezarritakoarekin arabera, oinarri honen 8. atalean eskatutako dokumentazioa administrazio honetan edo beste batean entregatzen denean, eta eskatzaileak berariaz deklaritzen badu dokumentu horietan ez dela aldaketarik egin, horiek aurkeztutzat joko dira.

Eskatzaileak adierazi beharko du zein administraziotan eta noiz aurkeztu diren agiriok, eta Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak elektronikoki bilduko ditu bere korporazio-sareen bidez.

11.– Laguntza jasotzeko eskabidea nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango da, eskatutako dokumentazioarekin batera. Era berean, laguntza-eskaeraren ondoriozko jarduketetan eta

prozedura osoan entitate eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarritakoaren arabera.

12.– Eskabideak oinarri honetan eskatutako dokumentazioa ez badauka, osorik ez badago edo akastuna bada, interesdunari jakinaraziko zaio gehienez ere hamar egun balioduneko epe luzaezina duela hutsa zuzentzeko edo beharrezkoak diren dokumentuak eransteko. Halaber, adieraziko zaio horrela egin ezean atzera egin duela ulertuko dela, Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburordeak ebazpena eman ondoren, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.4 artikuluan xedatutakoa betetzeko, eskabidea legez telematikoki aurkeztu behar badu interesdunak baina eskakizun horri muzin eginda presentzialki aurkezten badu, aurkezteko modua zuzentzeko eskatuko zaio, eta legez ezarritako bide elektronikoa erabiliz aurkezteko. Errekerimendu hori betetzen ez badu, aurrez aurreko aurkezpeneak ez du izango ez baliorik ez eraginik. Elektronikoki aurkezteko jarritako epea izango da eskabidea aurkezteko epea.

Ondorio horietarako, eskabidearen aurkezpen elektronikoa –zuzentzearen ondorioz eginikoa– oinarri honetan ezarritako epetik kanpo egiten bada, eskabide hori ez aurkeztutzat joko da.

13.– Edonola ere, aurkeztutako eskabidean adierazitakoa behar bezala ulertu, ebaluatu eta eskabidea izapidetzeko beharrezkotzat jotzen dituen bestelako argibide edo dokumentu osagarriak eskatu ahal izango dizkio Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak eskatzaileari.

14.– Helbide honetan eskura daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak:

<https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

7. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta gastuak.

1.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30. artikulua arabera, hauek dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

– Autokontrol-sistema ezartzearen ondoriozkoak:

- Sistemaren arduradunaren prestakuntza.
- Autokontrol-prozedura idaztea.
- Barne-auditoriak egitea.
 - Joan-etorrien kostuak.
 - Langileen kostuak.

– Ziurtapenetik eratorritakoak:

- Enpresa ziurtatzailea azpikontratatzeko.
- Ziurtapen-eskemaren kuotak.

2.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30.3 artikulua arabera, diruz lagundu daitezkeen gastuaren diru-zenbatekoak gainditzen baditu sektore publikoko kontratazioa arautzen duen araudian kontratu txikietarako ezarritako diru kopuruak, eta horrek hirugarrenekin kontratatzea eragiten badu, onuradunak hornitzaile desberdinen

hiru eskaintza eskatu beharko ditu, gutxienez, obra egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatu aurretik, salbu eta obra, zerbitzu edo ondasun horien ezaugarri bereziengatik merkatuan ez badago halakorik egin, eman edo hornitzen duen entitate nahikorik edota dirulaguntza eman aurretik egiten bada gastua.

Aurkeztutako eskaintzen artean egindako aukeraketa, justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskaeran aurkeztu beharko dena, efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera egingo da. Ez bada eskaintza merkeena aukeratzen, egindako aukera espresuki justifikatu beharko da memoria batean.

3.– Proiektuak gauzatzeko gehienezko epea 2026ko azaroaren 15a izango da.

8. oinarria.– Laguntzen kudeaketa eta prozedura.

1.– Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak du deialdi honetan araututako laguntzak kudeatzeko eskumena.

2.– Balorazio-batzorde bat sortuko da agindu honi lotuta aurkeztutako laguntza-eskabideak ebaluatu eta baloratzeko, eta balorazio-irizpide objektiboak aplikatzeko eta haiek haztatzeko.

3.– Balorazio Batzordea Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzako hiru kidek osatuko dute: Félix Guarrotxena Arlunduaga (batzordeburua), Ainara Zuazo Urkaregi eta Julian López Escudero (idazkaria). Ordezkoak María Aldazabal Etxebarria, Marcos Barroso Vinagre eta Jorge Amedo izango dira, hurrenez hurren.

Batzordeak, bere eginkizunak betetzeko, arloko adituei eskatu ahal izango die hala bileretan parte hartzeko nola aholkularitza emateko, beharrezko irizten dionean.

4.– Balorazio Batzordeak, 9. oinarrian jasotako laguntzak baloratzeko eta kuantifikatzeko irizpide objektiboei jarraituz, onuradun bakoitzari zenbateko laguntza emango dion baloratuko du.

5.– Balorazio-batzordeak bere funtzionamendu-arau propioak ezarri ahalko ditu. Arau horiek aurreikusten ez dituzten gaitan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa aplikatuko da.

6.– Eskabideen balorazioan eta prozeduraren proposamenean edo ebazpenean parte hartzen duten pertsonen Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 8.5 artikuluan xedatutakoaren arabera jardun beharko dute, eta ez dute esku hartuko haien inpartzialtasuna arriskuan jar dezakeen edozein interes-gatazka gertatzen denean.

7.– Balorazio Batzordearen espedientea eta txostena ikusi ondoren, organo kudeatzaileak behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Proposamena interesdunei jakinarazi beharko zaie deialdiak ezartzen duen eran, eta hamar eguneko epea emango da alegazioak aurkezteko.

Entzunaldiaren izapidea alde batera utzi ahal izango da, prozeduran interesdunek azaldutako egitate, alegazio eta frogak besterik agertzen ez direnean eta kontuan hartzen ez direnean. Kasu horretan, emandako ebazpen-proposamenak behin betiko izaera izango du.

8.– Interesdunek alegazioak egiten badituzte, horiek aztertu ondoren egingo da behin betiko ebazpenaren proposamena, non datu hauek eman beharko diren: dirulaguntza zein eskatzaileri ematea proposatzen den, dirulaguntzaren zenbatekoa eta, hala badagokio, ebaluazioa eta balorazioa egiteko erabili diren irizpideak.

9.– Behin-behineko eta behin betiko ebazpen-proposamenek ez diete administrazio-arloko eskubiderik ekartzen onuradun izateko proposatutakoei.

10.– Dirulaguntzak emateko espedientean organo kudeatzailearen txostena egongo da, eta txosten horretan jasota geratuko da organo kudeatzailearen esku dagoen informazioaren arabera onuradunek dirulaguntzak jasotzeko eskakizun guztiak betetzen dituztela.

11.– Laguntza emateko prozeduraren ebazpena Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeak emango du.

9. oinarria.– Diru-zenbatekoa eta esleipen-irizpideak.

Laguntza norgehiagoka-erregimenean emango da jasotako eskabide guztietarako. Laguntza-ren diru-kopurua lagundu daitezkeen kostuen % 80rainokoa izango da; gehienez 50.000 euro proiektuko.

1.– Esleipen-irizpideak.

a) Eskabideak biltzen duen ustiategi-kopuruaren arabera, gehienez 30 puntu:

– 25 ustiategi baino gehiago: 8,5 puntu (ustiategiaren titularra edo titularkidea emakume nekazari bat bada, 1,5 puntu gehiago).

– 11 ustiategitik 25era: 17 puntu (ustiategiaren titularra edo titularkidea emakume nekazari bat bada, 3 puntu gehiago).

– Ustiategi 1etik 10era: 25,5 puntu (ustiategiaren titularra edo titularkidea emakume nekazari bat bada, 4,5 puntu gehiago).

b) Taldeak azpisektorean duen pisuaren arabera, gehienez 20 puntu:

– Azpisektoreko ustiategien % 50 edo gehiago: 15 puntu.

– Azpisektoreko ustiategien % 50 baino gutxiago: 20 puntu.

c) Eskatzaileak Kalitatean parte hartzea (Kalitateak ziurtatutako ustiategiak): 20 puntu.

2.– Laguntzaren zenbatekoa.

– 70 puntu dituzten proiektuak: lagundu daitezkeen kostuen % 80.

– 40-69 puntu dituzten proiektuak: lagundu daitezkeen kostuen % 70.

– 40 puntu baino gutxiago dituzten proiektuak: lagundu daitezkeen kostuen % 60.

3.– Dirulaguntzak lehiaren eta erabilgarri dagoen diru-zenbatekoaren arabera emango dira, eta oinarrietan ezarritako mugaraino esleituko dira, kreditu erabilgarriaren barruan. Laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituztenek eskatutako diru-zenbatekoen batura handiagoa bada deialdiaren aurreikusten den zenbatekoa baino, diru-kopuru hori onuradunen artean hainbanatuko da, dagokien proportzioan.

Hala ere, Emakume Nekazarien Estatutuaren 2015eko urriaren 15eko 8/2015 Legearen 15.b) artikuluan ezarritakoa betetzen duten onuradunek zenbateko osoa jasoko dute, hainbanatu gabe.

4.– Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inoiz izango interesdunek eskatutako zenbatekoa baino handiagoa.

10. oinarria.— Prozeduraren ebazpena, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko modua eta publizitate- eta errekurso-prozedura.

1.— Aurkeztutako eskabideak eta dokumentuak aztertu ondoren eta Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak egin duen proposamena ikusirik, 8. oinarrian xedatutakoaren arabera Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeak ebatziko du eskatutako laguntzak eman ala ez, ebazpen bakar baten bitartez.

Agindu hau indarrean sartu eta gehienez sei hileko epean eman eta jakinaraziko da ebazpena.

2.— Ebazpenak informazio hau jaso beharko du, gutxienez:

a) Aintzat hartutako eskaerei dagokienez:

i) Onuradunen izena edo izen soziala, eta IFK.

ii) Diruz lagundutako zenbatekoa.

iii) Aplikatutako irizpide objektiboak eta laguntzaren ehunekoa.

iv) Minimis laguntza bat dela, Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduari atxikia —Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Erregelamendua—.

v) Izaera juridikorik gabeko pertsona fisikoen edo juridikoen taldeen kasuan, ebazpenean berariaz adierazi beharko dira kide bakoitzak proiektua exekutatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntza-zenbatekoa.

b) Ezetsitako eskaerei dagokienez:

i) Eskatzaileen izena edo izen soziala, eta IFK.

ii) Eskabidea ez onartzeko arrazoiak.

3.— Norgehiagoka-prozeduraren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, ezagutzera eman dadin, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b) artikularekin bat etorritik; horrek ez du eragotziko, baina, aurreikusitako laguntzen ebazpenaren banakako komunikazioa egin beharra.

Hala ere, onuradunei argitalpenaren berri emango zaie Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bidez:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

4.— Agindu honek ondorioak dituenetik aurrera sei hilabete igarota, berariazko ebazpenik jakinarazten ez bada, eskabidea ukatu zaiela ulertu beharko dute interesdunek, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeiko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.5 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

5.— Prozeduraren ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekursoa aurkeztu ahal izango dio interesdunak Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza sailburuari, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena argitaratzen denetik aurrera, edo hiru hilabeteko epean, administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

6.– Jakinarazpen elektronikoak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera jo beharko da:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

11. oinarria.– Onuradunen betebeharrak.

1.– Agindu honek arautzen dituen dirulaguntzen onuradunek oinarri honetan ezarritako baldintzak bete behar dituzte, bai eta beste hauek guztiak ere: Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzearen 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluko betekizunak, Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikulua, eta laguntza bakoitzeko betebeharrak espezifikoak; honako hauek:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, baldin eta dirulaguntza eman izanari buruzko ebazpena argitaratu eta hamabost eguneko epean onuradunek ez badiote berariaz uko egiten, onartu egiten dutela ulertuko da.

b) Diruz laguntzen den jarduera burutzea 12. oinarrian ezarritako epean.

c) Dirulaguntza eman den xederako erabiltzea.

d) Beren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

e) Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari jakinaraztea jarduera edo proiektua zati batean edo osorik gauzatu dela eta haren esku jartzea hala egin dela egiaztatze beharrezkoak diren agiri guztiak.

f) Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta Europar Batasuneko kontrol-organismoek jasotako laguntzak nola erabili diren eta haien helburuak bete diren fiskalizatzeko eskatzen duten informazio guztia ematea.

g) Deialdi honen 5. oinarriko 1.j) atalean xedatutakoa eragotzi gabe, baldin eta beste administrazio batek edo entitate publiko edo pribaturen batek helburu bererako ematen duen beste laguntzarik eskatu eta eskuratzen bada, horren berri ematea Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari, idatziz, laguntza hori eskuratu izanaren berri izan eta hurrengo hamabost egun naturalen barruan eta, betiere, funts publikoen erabilera justifikatu aurretik. Era berean, 2024., 2025. eta 2026. urteetan minimis erregimenera atxikitako bestelako laguntzarik eskatu duen edo ez eta lortu duen edo ez jakinaraztea, baita horien diru-zenbatekoa ere.

h) Dirulaguntza emateko kontuan hartzen den egoera subjektibo edo objektiboren bat aldatzen bada, aldaketaren berri ematea Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari, idatziz.

i) Merkataritza-legeriak eskatzen dituen baldintzetan izatea ikuskatutako kontabilitate-liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako dokumentu guztiak, eta deialdi bakoitzean finantzatutako inbertsioarekin lotutako gastu guztietarako kontabilitate-kode egoki bat edo kontabilitate-sistema bereizi bat edukitzea, araudiak finkatzen dituen kontrolak egin ahal izateko.

j) Jasotako dirulaguntza zertan erabili den egiaztatze dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapenak edo kontrolak egiteko erabil baitaitezke.

k) Finantzaketaren izaera publikoaren publizitate egokia ematea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzearen 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 27. artikuluan ezarritakoarekin bat eginez.

2.– Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak automatikoki eta ofizioz egiaztatuko du ea egunean dauden zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hala ere, eskatzaileak modu arrazoituan aurka egin ahal izango dio prozedura horri, eta, hala egiten badu, ziurtagiria edo behar den agiria aurkeztu beharko du, betiere 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

12. oinarria.– Gastua justifikatzea.

1.– Laguntzen den proiektua burutu dela justifikatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzan:

a) Aurkeztutako proiektuan gauzatutako jarduketan justifikazio-memoria, autokontrol-sistemak ezartzeko gastuen, ziurtapen-gastuen eta egindako prestakuntzaren fakturak eta ordainagiri originalak barne hartuta.

b) Erantzukizunpeko adierazpen bat, zehazten duena fakturak eta ordainketak justifikatzeko gainerako egiaztagiria ez direla aurkeztu diruz lagundu daitezkeen beste programa batzuk justifikatzeko edo, hartarako aurkeztu badira, zehazten duena zer programa justifikatzeko aurkeztu diren eta faktura edo egiaztagiri bakoitzaren zer ehuneko lagundu den diruz.

c) Behar izanez gero, dirulaguntzak itzultzeagatik dagozkion betebeharrak ordaindu dituela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

2.– Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak automatikoki eta ofizioz egiaztatuko du ea egunean dauden zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake laguntza-eskabidean inplizituki dagoen baimen hori, eta, hala egiten badu, ziurtagiria edo eskatzen zaion agiria aurkeztu beharko du, betiere 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.– Laguntzak behar bezala kudeatu eta ordaintzen direla bermatzeko, egindako gastua egiaztatzen duten agiriak aurkezteko epea, gehienez, 2026ko azaroaren 15era artekoa izango da.

4.– Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariak agiri gehiago eskatu ahal izango ditu, egoki irizten badio. Eskaera hori arrazoitu egin beharko da.

13. oinarria.– Ordainketa.

1.– Ordainketa egiteko, aurretik eskatu eta gastua justifikatu beharra dago, aurreko oinarrian adierazitako agiriak aurkeztuta.

2.– Ez da laguntzen aurrerakinik edo konturako ordainketarik emango.

3.– Ordainketa egiteko eskabidearekin batera, 12. oinarriko 1. atalean aipatzen diren agiriak aurkeztuko dira. Behin dokumentazioa osatuta, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak behar diren izapideak egingo ditu, Ogasun eta Finantza Sailak dirulaguntza ordain dezan.

4.– Proiektua ez bada ezarritako gehieneko epeetan burutzen edo inbertsioa egin izana egiaztatzeko dokumentuak ez badira epearen barruan aurkeztu, onuradunek dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko dute.

5.– Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izateko, onuradunak dagokion Hirugarrenen Erregistroan izena emanda egon beharko du. Hirugarren interesdun gisa alta emateko edo datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak emandako hirugarrenentzako erregistro telematikora jo behar da, honako helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/web01-tramite/eu/>

14. oinarria.— Bateragarritasunak.

Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste entitate publiko zein pribatuek helburu berbererako emandakoekin, betiere diruz lagundutako jardueraren gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Kasu horretan, agindu hau betez eman beharreko diru-zenbatekoak gutxitu egingo dira, laguntzaren xede den jardueraren kostu errealeraino, 17. oinarriaren 1. puntuan ezarritakoaren arabera.

Hala ere, Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduan ezarritako minimis erregimenarekin bat, onuradun batek ezingo du 300.000 eurotik gorako diru-kopurua jaso aurreko hiru urteak biltzen dituen aldian, edozein direla ere laguntzaren xedea edo helburua eta laguntza ematen duen administrazio-organoa. Diru-kopuru hori gaindituz gero, eman beharreko kopuruak murriztu egingo dira, baimendutako gehieneko mugaraino, 17. oinarriaren 1. puntuan ezarritakoaren arabera.

Onuradunek konpromisoa hartzen dute diruz lagundutako jarduerak gainfinantzaketarik ez izateko eta helburu bererako beste laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso dituztela jakinarazteko, agindu honetan eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean aurreikusitakoarekin bat etorriz.

15. oinarria.— Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

1.— Beste entitate publiko nahiz pribatu batetik beste laguntzarik jasoz gero, idatziz justifikatu eta jakinarazi beharko zaio Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari, eta, horren ondorioz, gerta liteke dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea. Horretarako, Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeak dagokion aldaketa-ebazpena emango du, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak oinarri berriaren arabera doitzeko, horrela badagokio, eta, beharrezkoa izanez gero, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2021ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan jasotako itzulketa-prozedurari ekingo zaio.

2.— Aurkeztu eta dirulaguntza eman zaion proiektuan egiten dituen aldaketak idatziz jakinarazi eta behar bezala justifikatu beharko ditu onuradunak, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzaren aurrean.

Aurkeztu eta dirulaguntza eman zaion proiektuan aldaketa funtsezkoak egiten badira, Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeak ebazpena emango du, aldaketak onartzeko edo ezeztatzeko. Aldaketa onartuz gero, ebazpen horretan bertan laguntza emateko jatorrizko ebazpena aldatuko da, baldin eta edukiren bat aldatu bada.

Aldaketek ezin izango dute inola ere handitu 20/2023 Legearen 25. artikuluen arabera emandako laguntza.

Aldaketak ez badira funtsezkoak, ez da aldatuko laguntza emateko ebazpena, kontuan harturik, nolanahi ere, oinarri honen 3. atalean aurreikusitakoa gerta daitekeela.

3.— Baldin eta egindako gastuaren behin betiko benetako kostua txikiagoa bada onartutako eta dirulaguntza emateko erreferentziatzat hartutako aurrekontua baino eta laguntza helburu bererako erabiltzen bada, emandako dirulaguntzaren diru-zenbatekoa txikitu egingo da, dagokion proportzioan, Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordearen likidazio-ebazpen baten bidez, eta, gero, oinarri berriari aplikatuko zaio dirulaguntzaren ehunekoa.

16. oinarria.— Atzera egitea eta uko egitea.

1.— Eskatzaileak atzera egin ahal izango du bere eskabidean, betiere laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi aurretik. Horretarako, atzera egiteko eskabidea helarazi beharko diote Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeari, idatziz, eta hark, ebazpen baten bidez, bete-betean onartuko du eskabidea, eta amaitutzat emango du hari dagokion prozedura.

2.– Laguntzaren onuradunak uko egin ahal izango dio emandako laguntzari dirulaguntza ordaindu aurreko edozein unetan. Uko egitea idatziz aurkeztuko zaio Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeari, eta hark, ebazpen baten bidez, bete-betean onartuko du eta amaitutzat emango du hari dagokion prozedura.

Behin uko-egitea onartuta, onuradunak automatikoki galduko du ebazpen bidez onartutako eskubidea, baita emandako laguntza kobratzeko eskubidea ere.

Ez da onartuko aurkeztutako ukoa, erakunde interesdunari laguntza honekin lotutako ez-betetzearen edo zehapenaren deklarazio-prozedura baten hasiera jakinarazi ondoren. Prozedura hori izapidetzen jarraituko da, ebazpena eman arte.

17. oinarria.– Ez-betetzeak.

1.– Onuradunak ez badu betetzen agindu honetako betebeharren bat edo dirulaguntzak emateko ebazpenak ezartzen duen baldintzaren bat, edo ez badu proiektua zati batean betetzen eta, modu horretan, laguntzaren xedea osorik hutsaltzen badu, edo laguntza publikoak itzultzera behartzen duen egoeraren batean erortzen bada Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legeko 40. artikuluekin eta hurrengoekin bat etorritik, laguntza eman zuen organo eskudunak, itzulketa-espeditzea izapidetu ondoren eta interesdunari entzunda, ebazpen bidez, dirulaguntza jasotzeko eskubidea kenduko dio onuradunari (zati batean edo erabat), eta, hala badagokio, aginduko dio itzul diezazkion Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari jasotako laguntzak eta haien berandutze-interesak (proiektuaren gauzatze-mailaren arabera), bat etorritik Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. eta 40. artikuluekin, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta itzulketei buruzko 1991ko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuarekin eta Dirulaguntzei buruzko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37.2 artikuluekin, hartara eragotzi gabe beste neurri batzuk hartzea.

Ez betetze partziala, dirulaguntzarako eskubidea galtzea edo dirua itzuli beharreko kasuan, diruz lagundutako jardueraren egikaritze- eta justifikazio-mailarekiko proportzioan zehaztuko da, betiere baldin eta laguntzaren xedea bete bada.

Aipatutako diru kopuruak diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

2.– Itzulketa-prozedura arau-hauste administratibotzat har daitezkeen gertakarien ondorioz hasi bada, organo eskudunari jakinaraziko zaio, dagokion zehapen-prozedura hasi dezan, bai eta interesdunari ere. Administrazioko arau-hausteak izango dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 56., 57. eta 58. artikuluetan jasotako jokabideak.

18. oinarria.– Datuen babesa.

Agindu hau aplikatuta biltzen diren datu pertsonalak Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta gainerako araudi aplikagarrian xedatutakoaren arabera tratatuko dira.

Datuak babesteari buruzko informazioa lortzeko:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/113000-cap1-eu.shtml>

ESKAERA EGITEKO INPRIMAKIAREN EDUKIA

Laguntza eskatzeko inprimakia web-orri honetan dago eskuragarri:
<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1206906>

Hau da inprimakiaren oinarrizko edukia:

Eremu generikoak:

- Identifikazio-agiri mota.
- NAN zenbakia.
- Izena (pertsona fisikoentzat soilik).
- Lehen abizena (pertsona fisikoentzat soilik).
- Bigarren abizena (pertsona fisikoentzat soilik).
- Sexua (pertsona fisikoentzat soilik).
- Ordezkatzen dutan entitatea:
 - Entitatearen izena (pertsona juridikoek soilik).
 - IFK zenbakia.
 - Telefono finkoa.
 - Telefono mugikorra.
 - Helbide elektronikoa.
 - Lurralde historikoa.
 - Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala.
 - Abisuak jasotzeko helbide elektronikoa.
 - Abisuak jasotzeko mugikorra.
 - Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetarako hizkuntza.

Agiri hauek aurkezten ditu:

– Entitatea eratzeko eskrituraren eta estatutuen kopia bana, edo pertsona juridikoa legez eta modu baliozkoan eratuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioarena.

– Ziurtagiria lortzeko egin beharreko edo egindako ekintzen plan xehatua, ziurtatu beharreko ustiategiak identifikatuta (NUE – Nekazaritzako Ustiategien Erregistroak identifikatuta). Gastu hauen diru-zenbatekoak zehaztu beharko ditu: autokontrol-sistema ezartzea, sistemaren arduradunari prestakuntza ematea, autokontrol-prozedura idaztea eta baita barne-auditoriak egitea ere.

– Agindu honetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena, hau da:

- Ez naute zigortu, epai irmo bidez, dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzera, edo ez naute zigortu prebarikazioa, eroskeria, diru publikoen erabilera bidegabea, influentzia-trafikoa, iruzurra eta ordainarazpen ilegala edo hirigintza-delituak direla eta.

- Ez dut eskatu borondatezko konkurtsoaren deklaraziorik, ez naute ezein prozeduratan kaudimengabetzat jo, ez naiz konkurtsoan deklaratu izan —salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek—, ez nago esku-hartze judizialaren pean edota ez naute desgaitu Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaituntza-aldia amaitu gabe.

- Ez dut eragin, kausaren batean errudun deklaratu izateagatik, administrazioarekin egindako ezein kontraturen suntsiarazpen irmoa.

- Ez nago lege hauek jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean ere: 1984ko abenduaren 26ko 53/1984 Legea, Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzkoa, eta 2014ko ekainaren 26ko 1/2014 Legea, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak arautzen dituenak, eta ez naiz sartzen Hauteskunde Araubide Orokorraren 1985eko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguen multzoan, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

- Ez dut egoitza fiskala paradisu fiskaltzat hartutako ezein herrialde edo lurraldetan.

- Egunean nago EAEko Administrazioak edo haren mendeko entitateek emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan itzultze- edo zehapen-prozeduretako kantitate zehatzen ordainketari dagokionez. Ulertuko da betebeharrak horien ordainketak egunean dituztela, baldin eta zorrak atzeratuta eta zatikatuta badaude edo bertan behera uztea erabaki bada dagokion itzulketa-ebazpena dela-eta. Eskakizun hori bete beharko da bai onuraduna izateko, bai onuradun izaten jarraitzeko ere, dirulaguntzaren likidazioa egin arte. Beraz, alde horretatik, egiaztapenak egingo dira dirulaguntza ematen denean eta ordainketak egiten direnean.

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dauzkat.

- Ez dut jaso dirulaguntzak lortzeko aukera galtzeko zehapenik ebazpen irmo baten bidez.

- Ez nago sartuta Elkartzeko eskubidea arautzen duen 2002ko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debekuen kausetan. Administrazio-prozedura ez da eten ez-zilegitasun penalaren zentzuzko zantzuak egoteagatik, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, ebazpen judizial sendorik esleitzen ez bada, haren arabera kasuan kasuko inskripzioa egin ahal izango baita dagokion erregistroan (elkarteen kasuan).

- Ez nago zigortuta Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko 2022ko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 2021eko abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bidean emandako ebazpen irmo baten bidez, zuzenketa-neurri egokiak hartu eta zehapena ordaindu arte.

- Bete dut, hala egokitu zaidanean, desgaitasuna duten pertsonentzat lege ezarritako erreserba-kuota, eta ez dut egiaztatu hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri diren.

- Konpromisoa hartzen dut aurretik adierazi dudana betetzeko, adierazpen hau aurkeztan dudanetik hasi eta deialdia ebatzi eta emandako dirulaguntza guztia justifikatu arteko denbora-tarte osoan.

- Konpromisoa hartzen dut emandako dirulaguntza osoa justifikatu arte adierazitako inguruabarretan gerta daitekeen edozein aldaketa jakinarazteko.

– Pertsona juridikoen kasuan, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko 2015eko urriaren 15eko 8/2015 Legean ezarritakoa betetzea. Alegia:

- Pertsona edo entitate eskatzaileak ez du zigor- eta administrazio-zehapenik sexu-diskriminazioagatik, eta ez du galarazita dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera, 1/2023 Legegintzako Errege Dekretuari jarraikiz (emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena).

- Elkarte edo antolakunde profesionalak, enpresenak edo bestelakoak izanik, zuzendaritza-organoetako emakumeen eta gizonen kopuruan oreka egotea gutxienez, 2015eko urriaren 15eko 8/2015 Legearen 7.5 artikuluan ezarritako definizioaren arabera:

a) Zuzendaritza-organoko kideen guztizko kopurua: _____

b) Emakume-kopurua: _____

c) Gizon-kopurua: _____

- 9. oinarrian ezarritako puntuazio gehigarria jaso nahi izanez gero, entitate eskatzailearen titularra edo titularkidea emakumezkoa dela, horren egiaztagiria aurkeztuta.

Honako informazio hau ere eskatuko zaie onuradunei:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta haren organismo autonomoek emandako izaera bereko laguntza eta dirulaguntzen esparruan abiarazi duten itzultzeko edo zehatzeko prozeduraren batean sartuta dagoen ala ez. BAI/EZ.

– Eskatu dituen ala ez dituen eskatu (BAI/EZ), eta lortu (BAI/EZ), diruz laguntzekoa den gastu bererako beste laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabide ekonomikoak administrazio publiko edo ente publiko zein pribaturen baten eskutik. Halaber, 2024., 2025. eta 2026. urteetan minimis erregimenari atxikita eskatu edo lortu diren laguntzei buruzko berriazko adierazpena aurkeztea:

• 2024: lortutako diru-zenbatekoa: _____ eta entitate deitzailea: _____

• 2025: lortutako diru-zenbatekoa: _____ eta entitate deitzailea: _____

• 2026: lortutako diru-zenbatekoa: _____ eta entitate deitzailea: _____

☐ Eskabide honekin batera doazen agiri guztiak egiazkoak direla adierazten dut.

☐ Behar izanez gero markatu. EZ diot Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari baimenik ematen eskatzailearen NANA eta IFK automatikoki egiaztatzeko, ez eta eskatzaileak zerga-betebeharrak egunean dituela eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela frogatzen duten ziurtagiriak egiaztatzeko ere. Beraz, agiri horiek eskabidearekin batera aurkezten ditut.